



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA  
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA  
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4ª PTA 48003 BILBAO  
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62  
[www.bmf-fvm.org](http://www.bmf-fvm.org)  
<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

## AKTA-ACTA

### **BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO EZ OHIZKO BATZARRA ASAMBLEA EXTRAORDINARIA DE BMF**

Bilbon, 2020ko ekainaren 25ean, 21: 00etan, BMFren Ezohiko Batzarra eratu da bigarren deialdian. Federazioko presidenetea den Victor Vivar-ek Batzarreko presidente bezala dihar du, Federazioko idazkaria den Ainara Apariciok, Batzarreko idazkari bezala. Zuzendaritza Batzordeko kideak ere bertan dira: Ricardo Hernani, Dioni Pérez, Zigor Egia, Ana Sesumaga, Fernando Pérez eta Alfredo Gorbeña.

#### **PARTE-HARTZAILEAK:**

#### **EGIAZTAPENA EDO ORDEZKARITZA ZUZENA DUTEN KLUBAK:**

Bilbao Alpino Club, Deustuko Menditarrak, Arroletza, Arroletza, Baskonia m.t, Gallarraga, Ganguren m.t, Goiko Mendi, Alpino Tabira m.t, Turista Barakaldo, Ganerantz m.t, Sestao Alpino C., Etorkizuna m.t, Ubietamendi, Goi Gain m.t, Deportivo Bilbao, Egunsentia, Txarlazo m.t, Lezama Gailur m.t, Burtotza m.t, Beraskola M.T, Bidelagun M.K.E, Itxartu Taldea eta Untza M.T.

#### **BMFKO HAUTESKUNDE-BATZORDEAK LEGEALDI HONETARAKO ESKATUTAKO ORDEZKARITZA OROKORRA AURKEZTU EZ DUTEN KLUBAK, BATZAR HONETARAKO UNEAN-UNEAN ORDEZKATUAK IZAN DIRENAK:**

S.M. Encartaciones, Juventus S.D eta Aldatz Gora.

#### **KIROLARIAK:**

Domingo Garcia Valerio, Victor Manuel Vivar, Txaro Iglesias Lareo, Ricardo Hernani Pérez, Joseba Undurraga Bidasolo eta Ainara Aparicio Arronategi.

#### **TEKNIKARIAK:**

Victorrek, BMFko presidente gisa, ongietorria eman die bertaratutakoei, eta eskerrak eman dizkie bertaratzeagatik. Idazkariak Batzarrera joan direnen zenbaketaren berri eman du, honela: 27 klubek (70 boto), kirolarien 6 ordezkari (6 boto) eta teknikarien 0 ordezkari (0 boto) parte hartu dute, hau da, 33 kidek eta 76 boto.

#### **EZOHIKO BATZARRA ERATZEA:**

Aurreko datuak ikusita, lehendakariak Batzarra behar bezala eratutzat jo du, Federazioaren Estatutueta 20.artikuluak dioena jarrituz.

Idazkariak jakinarazi du Bizkaiko Mendizale Federazioko presidentek deitu duela ezohiko batzar hau, BMFren estatutueta 18. artikuluan jasotako epeen barruan, BMFko hauteskundeetarako deialdia egiteko eta Hauteskunde Batzordeko kideak izendatzeko, gai-zerrendan jasotzen den bezala.

Presidenteak gogorarazi du BMFren azken batzarretan erabilitako eskema berari jarraituz, ordezkari

ofizialekin batera (bat Klub bakoitzeko) etorri diren pertsonen bileran sartzen utzi zaiela, nahiz eta ordezkari horiek ez duten botoa emateko eskubiderik.

Gai desberdinak sartzeko eskaerarik jaso ez denez, BMFren Estatutuen 19. artikuluan jasotakoaren arabera, deialdiko gai-zerrendan jasotakoei helden zaien.

### **GAI-ZERRENDAKO LEHEN PUNTUA: HAUTESKUNDEAK DEITZEA.**

Presidenteak, BMFren Hauteskunde Araudiko 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, hauteskundeak deitu ditu 2020ko azken lauhilekorako.

Batzarrari jakinarazi dio hauteskunde-araudia web orrian eskegita dagoela eta Federazioaren estatutuetan jasota dagoela. Irakurri Eusko Jaurlaritzaren komunikatua, non jakinarazten baitzaigu aurtengo hauteskunde-prozesuak prozesu hori arautzen duen hauteskunde-araudiaren arabera arautuko direla, eta Kultura eta Kiroletako foru-diputatuak sinatu zuen 2012ko otsailaren 19an.

### **GAI-ZERRENDAKO BIGARREN PUNTUA: HAUTESKUNDE BATZORDEAREN OSAKETA.**

Presidenteak hiru boluntario eskatu ditu bertan dauden klubaren artean, Hauteskunde Batzordeko kide izateko. Hiru boluntario aurkeztu dira titular izateko eta beste hiru ordezkari izateko. Beraz, Hauteskunde Batzordea honela eratu da:

#### **TITULARRAK:**

- S.M Enkarterriak.
- Ganguren M.T.
- Turista Barakaldo.

#### **ORDEZKOAK:**

- Deustuko menditarrak.
- Etorkizuna M.T.
- Grupo Alpino Arroletza.

Klub horiek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dizkiote BMFren Hauteskunde Batzordea osatzeko izendatzen dituzten pertsonen izenak. Batzorde horrek irailean egin beharko du hauteskundeetarako deialdia, eta lehen bilera hilaren 7an izango da.


### **HIRUGARREN PUNTUA: GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Batzarrarekin lotutako galderarik ez dagoenez, eta beste aztergairik ez dagoenez, Federazioko lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, eta eskerrak eman dizkie bertaratutako guztiei parte hartzeagatik.

Lehendakariordeak, Zuzendaritza Batzorde osoaren izenean, eskerrak eman dizkie guztiei urte guzti hauetan elkarlanean aritu izanagatik



**Fdo.: Ainara Aparicio**  
Secretaria BMF



**Fdo.: Víctor Vivar**  
Presidente BMF